

# PRENTSA OHARRA

## LANERA BIZIKLETAN ekimena martxan da Debagoienan, eredu osasungarria eta iraunkorra sustatzeko asmoz

“Lanera bizikletan” Gipuzkoako Foru Aldundiak, Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza eta Oñatiko Udalekin batera 2014ko azken hiru hilabeteetan zehar abian jarriko duten sentsibilizazio ekimena da. Ekintza honekin lanerako bidaiak edo joan-etorriak oinez edo bizikletan egitea sustatu nahi da. Horretarako Debagoieneko eskualdean sentsibilizazio kanpaina hau abian jarri da gaurtik, abenduaren bukaera bitartean. Gipuzkoako Foru Aldundiak Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuaren eskutik esperientzia pilotu bat antolatu du Debagoieneko lau udalekin elkarlanean, etxetik lanera egiten diren joan-etorriak bizikletan edo oinez egitea sustatzeko. Helburen artean honako hauek: herritarrak kontzientziaztea hiri-mugikortasunean dauden arazoez, zehazki, lantokien inguruan sortzen direnez, eta mugitzeko eta lanera joateko modu iraunkorragoetara aldatzeko premiaz jabeaztea; informazio argia eta zehatza ematea lantokira oinez edo bizikletan joateko dauden aukerez, bai azpiegitura bai baliabide mailan, automobila edo bestelako motordun ibilgailurik erabili gabe eta bizikletan edo oinez desplazamenduak egitea pertsonalki probatzeko aukera ematea, besteak beste.

Herritarrak sentsibilizatzeko, herri bakoitzean informazio bilerak antolatu dira; informazio euskarriak, foiletoak eta kartelak ipiniko dira lantegietan eta herrietako hainbat establezimenduetan; herritarrez osatutako erabiltzaileen sarea osatuko da; webloga [www.lanerabizikletan.net](http://www.lanerabizikletan.net) eta sare sozialak bultzatuko dira; doako telefonoa 900.102716; prentsa bulegoa eta publizitate kanpaina abian jarri dira.

Erakunde antolatzaileetako ordezkariak jongi ezagutzen dituzte gure gizartean ibilgailu motordunen erabilera masiboak eragiten dituen kalteak, bai ingurumenean bai langileen osasunean zein segurtasunean, eta horiek arintzea du helburu ekimenak.

Bi datu nabarmen:

- Hiri barruan, autoz egiten diren bidaien % 50a 3 km baino laburragoak izaten dira eta %10a 500 metro baino laburragoak. Bizikletan erraz egin daitezke, 20 minutu besterik ez baitira behar 5-6 km egiteko.
- Osasunaren Mundu Erakundearen, OMEEn arabera, bizitza sedentarioak urtean 1,9 milioi pertsona garaia baino lehen hiltzea eragiten du. Astean bost egunez 30 minutuko intentsitate gutxiko ariketa saioa eginez (ibili, pedalei eragin, eskailerak igo), bizitza sedentarioak eragiten dituen osasun arriskuei aurre egiten zaie.

*Mesedez, baieztatu asistentzia*

943.670637 – [lanerabizikletan@gmail.com](mailto:lanerabizikletan@gmail.com)

---

# NOTA DE PRENSA

## Se presenta en Debagoiena la iniciativa lanera bizikletan para fomentar un modelo sostenible y saludable

La Diputación Foral de Gipuzkoa, junto con los ayuntamientos de Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza y Oñati, presenta la iniciativa “Lanera bizikletan” para fomentar el uso de la bicicleta en los trayectos interurbanos entre las personas que van al trabajo. Esta iniciativa, que se desarrollará durante los meses de octubre a junio, pretende aumentar el número de vecinos que va a pie o en bicicleta a su puesto de trabajo.

La Diputación Foral de Gipuzkoa, junto con los ayuntamientos de Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza y Oñati, está llevando a cabo un programa para promover los desplazamientos a pie y en bicicleta a los centros de trabajo de estos municipios.

El objetivo general es fomentar el aumento de desplazamientos que se realicen caminando o en bicicleta en los citados municipios de Debagoiena. En este contexto, los objetivos específicos son:

- Concienciar a la opinión pública de los problemas de movilidad urbana derivados del uso excesivo del coche y la necesidad de apostar por un modelo más sostenible.
- Proporcionar información clara y precisa para optar por ir andando o en bicicleta al trabajo e informar sobre los recursos existentes y las alternativas a los vehículos particulares y vehículos de motor.
- Ofrecer la oportunidad de experimentar los desplazamientos en bici o a pie para que cada cual tenga una evidencia directa de los beneficios que aporta

De cara a sensibilizar a la ciudadanía se van a poner en marcha una serie de charlas informativas en cada municipio; un gabinete de comunicación para medios de comunicación, una weblog [www.lanerabizikletan.net](http://www.lanerabizikletan.net) vinculada a redes sociales para difundir la iniciativa, carteles, folletos informativos, una red ciudadana para ofrecer diversa información y descuentos participar, un teléfono gratuito 900.102716, etc.

Datos curiosos:

- La mitad de los viajes en coche que se realizan en el área urbana son de menos de 3 km y el 10 por ciento de 500 metros. En bici se pueden completar fácilmente en 20 minutos – unos 5-6 km-.
- Según la OMS (Organización Mundial de la Salud), el estilo de vida sedentario es responsable de la muerte de 1,9 millones de personas al año. Unos 30 minutos de ejercicio diario (caminar, pedalear, subir las escaleras) son suficientes para combatir los riesgos para la salud que suponen el sedentarismo.

*Mesedez, baieztatu asistentzia*

943.670637 – [lanerabizikletan@gmail.com](mailto:lanerabizikletan@gmail.com)

---